



EBALUAZIO-ERRUBRIKA
PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Espezieen deskribapenak (EUS 5.2 irizpidea)	Xehetasunez eta zehaztasunez deskribatzen ditu argazkian ikus daitezkeen hainbat ezaugarri fisiko, hiztegi aberatsa eta espezifikoa erabiliz. Testua koherentea eta kohesionatua da. Ia ez dago ortografia- edo gramatika-akatsik.	Argazkian ikus daitezkeen ezaugarri fisiko nagusiak argi eta ordenatuta deskribatzen ditu, nahiz eta kasuren batean xehetasun garrantzitsuren bat falta edo zehaztugabea izan daitekeen. Hiztegi egokia. Ortografiako/gramatikako akats gutxi, ulermena zailtzen ez dutenak.	Ikus daitezkeen ezaugarri fisiko batzuk deskribatzen ditu, baina modu orokor, zehaztugabe edo desordenatuan. Xehetasun garrantzitsuak falta dira behin baino gehiagotan. Hiztegi mugatua. Irakurketa zailtzen duten ortografia eta/edo gramatika akatsak.	Deskribapena oso pobrea da, nahasia, argazkian argi eta garbi oinarritzen ez dena edo ez da ia deskribatu. Testuak ez du egitura argirik, inkoherentea edo jarraitzeko zaila da. Hiztegi oso pobrea. Akats ugari.
Informazio-bilketa eta horren trataera (EUS 6.1 irizpidea eta NNZZ 2.1 irizpidea)	Iturri fidagarrietatik informazio osagarri askotarikoa eta zientifikoki zuzena ondo hautatu du.	Informazio gehienbat zuzena du (dieta, habitata, etab.), baina kasuren batean zerbait falta da edo ez du informazio egokia hautatu.	Informazio urria da, garrantzi gutxikoa, ez oso ondo hautatua, edo zenbait akats zientifiko esanguratsurekin.	Ia ez du informazio gehigarri aurkezten, edo informazio hori guztia garrantzirik gabekoa, okerra edo hitzez hitz kopiatutakoa da. Ez du ulermenik erakusten.
Jariakortasuna (EUS 3.1 irizpidea)	Narrazioa argia eta arina da, intonazio eta erritmo egokiekin. Erregistro formalaren erabilera eraginkorra da.	Narrazioa, oro har, argia da, erritmo edo intonazio arazo txikiekin. Erregistro egokia.	Narrazioak etenaldi luzeak ditu, edo erritmoa azkarregia da, edo ahoskera ez da oso argia.	Narrazioa ulertzea zaila da, erritmo, intonazio edo argitasun arazoak direla eta.